

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko maiatzak 9 · 1353 zenbakia



53 OROITZARREA / MEMORIAL VALENCIAGA

HELMUGA / META



ZALETASUNA

SARITZEKO URRATS BERRI BAT

AZKEN EGUNAK

Progresiboen Hilabetea

2 x 199€

mó betaurreko progresiboak
(batzuk eguzkitakoak izan daitezke)

Kontsultatu gogokan kargainekin esazgarriak.



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22

Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com   



EIBAR

Udala | Ayuntamiento

EIBARKO MUSIKA ESKOLA

25-26
IKASTURTERAKO
IZEN-EMATEA

Maiatzaren 12tik aurrera



musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus
943702725



Ezagutu gaitzazu hemen:

Facebook/ Instagram/ Youtube



@eibarkomusikaeskola





@etakitto



Ilustratzailea, gidoilaria, bakarrizketaria... Umorea ardatz, zenbait arlotan dabil lanean gaur egun Jone Bengoa eta, hori gutxi balitz, lagunekin 'Bi ta piku' proiektua jarri du martxan.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Valenciaga Memoriala

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



(*...eta kitto! k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

**Murrategi birgaitu orain!**

PSE eta Jon Iraola alkatearen utzikeria eta arduragabekeriaren ondorioz, bi urte eta erdi daramatzagu Murrategiko inbertsioaren zain. 2023ko Espainiako Estatuko Aurrekontu Orokorretan Euskal Herria Bilduk Murrategi auzoa biziberritzeko 3 milioi euroko akordioa lortu zuen Gobernuarekin. Zalantzarik gabe albiste ezin hobea zen eibartarrantzat, degradatua dagoen auzoa biziberritzeko aukera baikenuen.

Izan ere, Udalak berak 2016an eskatutako ikerketak Murrategi eremu degradatu izendatu zuen. Hori dela eta, 2019ko ekainean, Murrategiko Birgaitze Integratuko Plan Berezia (BIPB) idatzi zen, inguruko bizilagunen parte-hartzearekin. Plan hori 2021eko ekainean osoko bilkuran onartu zen eta, esan bezala, 2023an 3 milioi euroko inbertsioa lortu genuen. Hala ere, bi urte eta erdi beranduago, BIPBan ezarritako egikaritze-denborak ez dira errespetatzen ari eta ez da 2023rako aurreikusitako urbanizazio-proiektua egikaritu. PSEren Udal Gobernuak ez du ezer egin diru horren eskaera tramitatu eta biziberritze proiektua martxan jartzeko.

Behin eta berriz maila pribatuan mahaigaineratu diogu PSEri eta Jon Iraola alkateari inbertsioaren atzerapenaren gaineko kezka. Behin eta berriz esan diegu diru hori eskatzeko prozedura zein den, Andoingo udalak egoera berdintsuan jarraitu duena. Udaleko teknikariekin ere hitz egin dugu eta badakite prozedura zein den, baina Udal Gobernuaren borondate politikoa falta da prozedura martxan jartzeko.

Bai, harrigarria bada ere, PSE eta Jon Iraola alkateak ez dute prozedura abiatu nahi. Bost axola zaie Murrategiren biziberritzea. PSEren eta Iraolaren arduragabekeria eta utzi-keriaren ondorioz 3 milioi euroko inbertsioaren atzerapena daukagu.

Ondorioz, zintzotasun osoz Murrategi eta inguruko auzoetako bizilagunengana jotzen dugu bultzada txiki bat eskatzeko. EH Bildutik behin eta berriz proiektua lehenbait lehen abiatzeko ahalegina egin badugu ere, eta egiten jarraituko badugu ere, Udal barnetik presioa egiten jarraitzeko aukerak mugatuak direla ikusten dugu. Herritarrok PSE eta Jon Iraola alkateari tramitazioarekin hastea exijitu behar diegu. Murrategi eta Eibarko ekialdeko bizilagunek espazio duinak merezi dituzte. Murrategi birgaitu orain!

Eibarko EH Bildu

Deia Eibarko herritarrei

Eibar BHiko irakasle talde bat gara eta herritar guztiei dei egin nahi dizuegu datorren **larunbatean, maiatzaren 10ean**, egingo den **manifestazioan parte hartzera**, Euskal Hezkuntza Publikoaren alde borroka egiteko eta indarrak batzeko.

Hezkuntza publikoa erronka handien aurrean dago. Irakasle guztien beharrei modu egoki eta duin batean erantzuteko baliabide gehiago, egonkortasun handiagoa eta Euskal Hezkuntza Publikoaren aldeko apustu sendoa behar dira. Hezkuntza ez da soilik ikastetxeen kontua: gure herriaren etorkizuna da, gure haur eta gazteen garapen pertsonala eta soziala bermatzeko oinarria.

Horregatik, Donostia, Gasteiz eta Bilboko kaleetan elkarrekin oihu egin nahi dugu zurekin batera larunbat honetan Euskal Hezkuntza Publikoaren indartzea ezinbestekoa dela aldarrikatzeko. Euskal Hezkuntza Publikoaren baldintzak hobetu. 2010eko lan hitzarmena berritu orain!

Eguna: Larunbata, maiatzaren 10a. Tokiak eta orduak: Donostian, 17:00etan (Alderdi Eder); Bilbon, 18:00etan (Hezkuntza Ordezkaritza, Gran Vía 85); Gasteizen, 18:00etan (Bilbo Plaza).

Zatoz gurekin! Eman dezagun pauso bat Euskal Hezkuntza Publiko sendoago eta bidezkoago baterantz.

Eibarko BHiko irakasle talde bat

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PIKAR→ Aldatsa oso gogorra dela adierazteko. PIKA gehiago erabiltzen da. “Eibarren Pikarkalia eta Pikar-gain, aldatz pikarra ebelako”.

PIKARO→ Maltzurra, lotsabakoa, bihurria. “Pikarua zan ha bera be-eta! geldi egoteko klasia ez ha”.

Argazki zaharra

1935

Untzaga Plazako arkupeak

Untzaga Plazan (gaur egun harmailak dauden aldean) 1960ko hamarkadaren amaieran egindako argazki honetan ikusten diren arkupeak urte horretan eraiki eta 1997an eraitsi zituzten. Argazkia egin zenean Falangeren Seccion Femeninaren egoitza han zegoen, musika kioskoaren alboan.

PLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 9

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

ZAPATUA 10

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

DOMEKA 11

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

ASTELEHENA 12

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

MARTITZENA 13

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

EGUAZTENA 14

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

EGUENA 15

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

BARIXAKUA 16

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Angel Olañeta Markiegi.**
90 urte. 2025-04-23.
- **Mari Carmen Arrieta San Pedro.**
81 urte. 2025-04-24.
- **Edurne Aizpuru Aizpuru.**
91 urte. 2025-04-25.
- **Isabel Laconcha Zubillaga.**
86 urte. 2025-04-29.
- **Vicente Merino Abad.**
76 urte. 2025-04-30.
- **Ion Kortina Gisasola.**
59 urte. 2025-05-01.
- **Jose Angel Olarte Calleja.**
65 urte. 2025-05-03.



San Isidro baseritarren babeslearen omenezko jaia ospatuko da Arraten

Baserritar guztientzat jai-egun berezia izaten da maiatzaren 15a, San Isidro nekazarien babeslearen eguna ospatzen dutelako. Urtero lez, Eibar eta inguruko baserritarrek Arraten elkartuko dira, egun-pasa ederra egiteko. Mezarekin hasiko dute eguna, 11:00etan, eta bertan izango dira bertsolari eta trikitilariak ere. Jarraian prozesioa eta aureskua egingo dira, Kezka Dantza Taldekoen eskutik eta, eguerditik aurrera, Debabarreneko produktuen dastaketa eta herri-kirolak izango dira. Baserritarrentzat bazkaria ere egingo da, eta bazkalostean hasiko da bertsolari eta trikitilarien saioa. Arratsaldeko idi-probekin amaituko da jaia.



Pentsiodunek 140.000 sinadura baino gehiago aurkeztuko dituzte Legebiltzarrean

Herri Ekimen Legegilea (HEL) sustatzeko lanean aritu dira Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendutik azken hileotan eta, besteak beste, hori babesteko sinadurabilketak egin dira herri guztietan, baita Eibarren ere. Zapatuan laga zioten sinadurak biltzeari eta oso pozik azaldu dira, Gipuzkoako Pentsionisten Elkarteak eguaztenez egingandako agerraldian esan zuten bezala. 140.000 sinadura baino gehiago bideratuko dituzte Eusko Legebiltzarrera, maiatzaren 15ean.

Pentsiodunek egun horretarako mobilizatzea deitu ditu herritarrek Gasteizera, Legebiltzarrean sinadurak aurkeztuko dituztela aprobetxatuta. Debabarrenetik bertara joateko autobusa antolatu dute, eta oraindik txartelen bat badagoela jakinarazi dute. Eibarren Ego Gainetik irtengo da autobusa, 09:30ean, eta buelta 13:30ean egingo du, katedralaren aldameneko geltokitik. Prezioa 10 eurokoa da (Eibarko Pentsionista Taldekoekin kontaktuan ipini).



"Braderie" azokaren bigarren edizioa egingo da maiatzaren 16an

Eibar Merkataritza Gune Irekia elkarteak antolatu du ekitaldi hori, Eibarko Udalarekin, Merkatarien Elkartearekin eta Ostalarien Elkartearekin lankidetzan, eta Eusko Jaurlaritzaren finantzazioarekin, herriko merkataritza suspertzeko helburuarekin, "eta jendeari esperientzia berezi bat eskaintzeko". Egun horretan, parte hartzerantz animatu diren herriko establezimenduek kalera aterako dituzte beraien produktuak, "mahaiak, esekitokiak, erakusmahaiak edo beste euskarri batzuk erabiliz, ingurune dinamiko eta erakargarria sortzeko asmoz. Erosketak egiteaz gain, musika, gastronomia eta familia guztiarentzako jarduerak egingo dira".



Euskal Herriko Islamiar Federazioaren 4. biltzarra Eibarren egingo dute

Euskal Herriko Islamiar Federazioak (FIVASCO) Eibarren egingo du bere laugarren biltzarra, bihar, Al-Fitrah Komunitate Islamikoaren egoitzan (Urkizu kalea 13). Azaldu dutenez, “kongresu honetan gure komunitateek gizarte dinamikoago, kohesionatuago eta justuago baten eraikuntzan duten paper aktiboari buruzko hausnarketa kolektiboa sustatuko da, ‘Gizartea Indartzeko Presentzia Aktiboa’ lelopean”. Jardunaldia 15:00etan hasi eta iluntzean amaituko da, eta hainbat hitzaldi eta solasaldi egingo dira.



Udaberri Azoka egingo dute Ipuruako Merkatuan

Udaberri Azoka egingo dute asteburu honetan Ipuruako Merkatu Plazan. Bihar goiz eta arratsaldean (11:00/14:30 eta 17:00/20:00) zabalduko dute, eta bertan artisautza, moda-osagarriak eta beste gauza asko erosteko aukera egongo da. Domekan 10:00etatik 15:00etara zabalduko dute.

Entitateen arteko lankidetzaz eta bizikidetzaz aztertuko dituzte eguen goizean Coliseon

Eguenean (hilak 15) entitateen arteko lankidetzari eta bizikidetzari buruz hausnartzeko ekitaldia hartuko du Coliseo antzokiak, 10:30etik 12:30era. Debegesa garapen agentziak abiatu du Begi Bistan izeneko proiektu berri hori. Programa Jon Iraola Eibarko alkateak egingo duen ongi etorriarekin hasiko da, 10:30ean, eta Kutxa Fundazioko Amalia Virtoren eskutik egingo da jarraian irekiera-ekitaldia. Egitarauaren baitan bi mahai-inguru antolatuko dituzte. Lehena 10:45ean hasiko da eta “Inklusiorako tresnak: sarean lan egiten” izenburua dauka. Bertan Marta Sanz (Zabaltzen sartu), Javi Jimenez (Kalexka), eta Asmae Ourdi (Debegesa) arituko

dira berbetan. Hori amaitu ondoren, 11:00etan konzientzia eta ahalduzko landuko dira, film laburren bidez. Horretarako, Azitaingo Lanbide Heziketa Eskolako ikasleek egindako bideoen proiektua egingo da, Bright Martins ikus-entzunezkoen zuzendariarekin batera. Eta bigarren mahai-ingurua, “Funtzionatzen duten proiektuak: esperientzia partekatua sarea ehuntzen jarraitzeko” izenekoa, 11:50ean hasiko da. Amaia Valdivieso (Armeria Eskola), Ainara Labado (...eta kitto! Euskara Elkartea) eta Patxi Gonzalez (Katealegia) arituko dira bakoitzaren esperientziak partekatzen. Herritar guztiei zabalik dago ekimena.

Gerra Fronteko bisita gidatuak eskainiko dituzte hilean behin eta dohainik

Bihartik hasita, Gerra Zibileko gerra-frontearen ibilbide historikoa egiteko aukera egongo da. Abendura arte, hilabete behin bisita gidatuak egingo dira, doan, Arrateko Gerra Zibileko Interpretazio Zentrotik abiatuta. Doako jardueraz izango den arren, interesdunei aurretik izena ematea eskatzen dute, eta horretarako Udalaren webgunean dagoen formularioa bete behar da.



Gaurtik domekara ospatuko dira 40. edizioa beteko duten Dia das Letras Galegas jaiak

Gaur arratsaldean, 19:00etan hasiko dira As Burgas Galiziako Kultur Etxeak antolatzen dituen Dia das Letras Galegas jaiak ospatzen, Urkizuko parkean jai-batzordearen taberna zabaltzearekin batera. Jarraian, Urkizun bertan kalejiran ibiliko dira Os Galaicos gaita-taldekoak, Eibarko Trikitilariekin batera, kalean dabilen jendea geroko jairako girotzen joateko. Haurrentzat, berriz, Lekim Animaciones taldearen eskutik pailazoan ikuskizuna egongo da. Eta gauean, urtero lez, musika eta dantza izango dira protagonista. Alabama orkestrak eskainiko du gaurko ikuskizuna, 22:00etatik 01:30era. Gauerdian, baina, atsedendaldia egingo dute, Galiziako Etxekoen eskutik queimada egiteko.

Biharko egitaraua goizetik hasiko da: umeendako "chave" jaurtiketa (11:30), herri-kirolak (12:00), eta ume zein helduendako igel-toka (13:00) antolatu dituzte. Helduen "chave" jaurtiketa 16:00etan hasiko da, eta 18:00etatik aurrera itzuliko dira musika eta dantzak Urkizuko

parkera, Os Galaicos taldearen eta Academia de baile Evaren eskutik. Gaueko dantzaldia Suavecito orkestrak girotuko du (22:30etik 02:00etara, queimada egiteko etendia arekin).

Eta domekarako ere egun osorako plana prestatu dute. Eguerdiko 12:00etan Galiziako eta Euskal Herriko dantzen erakustaldia egingo dute parkean, Os Galaicos, Kezka dantza taldearen eta Eibarko Trikitilari taldearen eskutik. 14:00etan, berriz, urteroko moduan lore-eskaintza egingo dute parke parean dagoen Castelaoren oroitarrian. Ondoren, luntxa egongo da jaiak antolatzeko lanean aritu direnentzat, haien laguntzat eta herriko agintarientzat. Arratsaldean, berriz, mahai-joko ezberdinak probatzeko aukera paregabea izango da, 16:30etik 18:30era Odisea elkarteak han egongo dira eta. Eta asteburuko hirugarren ikuskizun musikarekin agurtuko dituzte jaiak: 18:00etatik 22:00etara Rock You taldearen emanaldian berriz ere dantzan aritzeko aukerarik ez da faltako.



Ipuruako jai batzordeak krosa antolatu du maiatzaren 30erako

Ipuruako Jai Batzordeak, Ipuruako Merkatu plazarekin batera, Ipuruako Krosa antolatzeko erabaki du. Maiatzaren 30ean (barixakua) izango da, 19:00etan, Argatxako Jardinetan ikastola paretik aterata. Haur eta gaztetxoek parte hartu ahal izango dute eta maila desberdinak egongo dira, adinaren arabera. Parte hartzeko beharrezkoa izango da izena ematea maiatzaren 23a baino lehen.

Kanpoko igerilekuetako taberna hartzeko lehiaketa deitu du Udalak

Eibarko Udalak lizitazioa atara du Ipuruako kanpoko igerilekuetako tabernaren gestioa, 2025eko udarako. Lizitazioaren oinarriko kanona 875 euroan ezarri da, eta jabari publikoko ondasuna erabiltzeko epea 2025eko ekainaren 7tik irailaren 28ra artekoa izango da. Informazio gehiagorako Eibarko Udaleko Kontratatuzailearen Profilean kontsultatu daiteke.



Asteburu biribila ospatu zuten Santa Kurutzeko jaietan

Eguraldia lagun, jende mordoak elkartu zen asteburuan Santa Kurutzeko ermita inguruan, jaiak ospatzeko. Ekitaldiz betetako bi egunetan, Gorosta-Mandiolako baserritarrek prestatutako jarduerkin gozatu ahal izan zuten guztiak: meza, ume eta helduentzat jolasak, herri-kirolak, musika, dantzak, eskupilota... Bestalde, Jai Batzordea jakinarazi duenez, 370 zenbakiari

egokitu zaio opariz betetako karretilla (ordezkoa 162 zenbakia da). Jaien errepikapena bihar ospatuko dute, baina kalean: bertso-afaria egingo da Deporren, 21:00etan, Julio Soto eta Joanes Illarregirekin (txartel gutxi batzuk gelditzen dira Depor tabernan). Aurretik, 19:00etan musikaz lagundutako poteoa hasiko da Untzagan. (*Arguskiak: Felix Beitia eta auzoko jai batzordea*).



**Astindu
ohiturak!!**
Zelan?



Errenta aitortpena?
EUSKARAZ!!!
Zure aukera da!

- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.
- **Mekanizatua egiteko:** 1) ordua hartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula
2) aitortpena egiterakoan, gauza bera.
- **Internet bidez** egitean, jaitsi errenta programaren euskarazko bertsioa, eta hobetsitako hizkuntza atalean aukeratu euskara.



Eibarren
AKEBAI

Dantzatzen duen herria...

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko herriko taldeek aurreko asteko eguaztenean egindako erakustaldiek jendetza bildu zuten. Ballet Eibarres, Beheko Tokia, Eibarko Dantza Eskola, KAXA, Kezka, Koa, Pagatxa, La Salsa de Cuba eta Untzagako Jubiletxea aritu ziren dantzan, arratsaldeko lehen orduan Ipuruan, Legarren, Errebalen eta Urkizun, eta ondoren Untzagan elkartu ziren, dantza-jaialdi ikusgarria eskaintzeko. Amaitzeko, Gauargi taldeak girotutako erromeria egin zen.

BIDEOA



ARGAZKIAK







ARRATE GARITAONANDIA

Haurrei eta nerabeei laguntzeko telefonoa

Zeuk Esan haurrei eta nerabeei laguntzeko zerbitzua da, eta informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzen die adingabeei eta haien inguruan dauden helduei. Horretarako dago 116111 telefonoa. Urtean 365 egunetan 24 orduz funtzionatzen du, eta deia guztiz doakoa da.

Telefono bidezko zerbitzu hori gero eta ezagunagoa eta eskuragarriagoa da haur eta nerabeen artean. 2024an 2.197 kontsulta jaso dira guztira, aurreko urtean baino 572 gehiago. Azken hamabi urteetako kontaktu-kopururik handiena.

Azpimarratzekoa da nola handitu den zerbitzu hori erabili duten 12 urtetik beherako haurren ehunekoa. Erradiografia sozial gisa balio digun argazki beldurgarria da, agerian uzten dituen familien komunikazio falta, gorantz doan isolamendua eta zerbitzu hau, larrialdiko baliabide gisa, erabiltzeak eragiten duen desesperazioa.

Komunikaziorik ezak eta isolamenduak areagotu egin dute adingabeek euren ahotsa, beldurrik gabe, sentsibilitatez eta kritikarik gabe, baten batek entzuteko duten premia.

Kontsulten kopuruak gora egiten ari dira, eta horrek erakusten du helduak apenas gaudela gure adingabeen errealitatean, bizi dituzten errealitateak gutxiesten direla edo ingurukoentzat ez direla nahikoak, eta haurrei eta nerabeei autokudeatzen uzten diegula laguntasun falta batetik, deskonexioa eta deserrotzea bultzatuz.

Adingabeekiko komunikazio-urruntzearen erantzukizuna sare sozialei, pantailei... egozten diegunean, inguruko helduen erosotasuna gutxienez maila batean handitu dela aztertzeke ariketa bat proposatzen dut.

Datuek hausnarketa sakona egitera eraman beharko gintuzkete. Gure adingabeak bizitzarekin konektatzen laguntzen ari gara, behar bezain presente egonda?

“Kontsulten kopuruak gora egiten ari dira, eta horrek erakusten du helduak apenas gaudela gure adingabeen errealitatean”

MGEP

MENDIAGON GOI ESCOLA POLITEKNIKA
JOZU MARIA ANZURENARRITA, 4000 E

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industrialia
- | Automatizazio eta Robotika Industrialia

Especializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna

» Oñati gestio heziketa

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- | Salmenten Kudeaketa
- | Administrazioa eta Finantzak

AURREMATRIKULA

Maiazaren
Setik 23ra

MGEP: 664298683 // 664298704
OÑATI GESTIO HEZIKETA: 943718009

Hazi, hezi, Mekan ikasi!

AURREMATRIKULA

Maiazaren Setik 23ra

Tel. 943 748 019

bulegoa@meka.eus

www.meka.eus

LANBIDE
HEZIKETA
EGOKIA

ALBIZURU ERAKUNTZA
Albizuru, Pol. 24
20870 ELDOBAR (Gipuzkoa)

EZINARRI ERAKUNTZA
Aragitegi, 2
20870 ELDOBAR (Gipuzkoa)

ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA

- Administrazio kudeaketa (ERDI MAILA)
- Administrazioa eta Finantzak (GOI MAILA)
- Zuzendaritza laguntza (GOI MAILA)

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Soldadura eta galdaragintza (ERDI MAILA)
- Metal enkaruntza (GOI MAILA)

SARRIAIUA ETA BILGAIUEN MANTENHENDUA

- Bilgailu automatizatuak (ERDI MAILA)
- Makineriaren elektromekanika (ERDI MAILA)
- Ramuntzea (ERDI MAILA)
- Autonomia (GOI MAILA)

ESPECIALIZAZIO KURTSOAK

- Bilgailu, fabrika eta elektro-lanaren sistemak mantentzea eta segurtasuna (GOI MAILA)

OSARTE ETA KULTUR ZIBILIZAZIOA

- Mendeletan agerian dauden pertsonaia (ERDI MAILA)
- Flur Heziketa (GOI MAILA)
- Komunikazio bitartekotasun (GOI MAILA)
- Genero berdintasunaren kultura (GOI MAILA)
- Gizarte-erantzukizuna (GOI MAILA)

OSASUNGINTZA

- Eruskarren Zerbitzu Osasunak (ERDI MAILA)
- Dietetika (GOI MAILA)

LANBIDE HEZIKETA KO ESKAINTZA



Lehen mailako argazkilaritza jaialdia izango dugu maiatzean



Jose Luis Irigoien Klub Deportiboko argazkilaritza batzordeko kideak argi dauka: “Argazkilaritza Maiatzean lehen mailako jaialdia da, Euskal Herriko onena ditugun baliabideak kontuan hartzen baditugu”, aipatu zuen ekimenaren aurkezpen egunean eta, hilabeteen zehar prestatu dituzten ekintzak ikusita, arrazoirik ez zaio falta. Gaurtik hasita, hilaren amaierara arte, argazkilaritza izango da protagonista herrian.

Aurkezpenaren
BIDEOA



Argazkilaritza Maiatzean ekimenaren edizio berria antolatu du Eibarko Klub Deportiboaren argazkilaritza batzordeak. Bertan, goi-mailako argazkilarien erakusketak jasotzeaz gain, tailerrak, rallya eta hitzaldia (“aurtengo berritasuna izango da”) izango ditugu datozen asteotan. Tailerra kenduta, beste jarduera guztiak doakoak izango dira eta, zentzu horretan, gurean izango diren argazkilar handien prestutasuna eskertu dute antolatzaileek, doan eskaini baitituzte euren argazkiak. “Argazkilaritza Maiatzean jaialdi ospetsua da eta horregatik etorri nahi izaten dute gurera maisu handiek”, diosku Irigoienek. “Gainera, argazkilar batzuentzat ‘katapultat’ da argazkiak Eibarren erakustea, gero beste hainbat tokitan ikusi izan ditugulako”.

Erakusketak Portalean, Deporren eta Topalekuan

Gaur emango zaio hasiera aurtengo egitarauari, 26ra arte Portalean egingo den erakusketarekin. 19:00etan egingo da erakusketaren irekiera eta bertan Jose Conceptes, Jose Ramon San Jose, Gracia de la Hoz, Juan Antonio Palacios eta Jose Carlos Romeroren lanak egongo dira ikusgai, azken horrenak Portaleko tabernan. Gainera, euretako gehienak bertan egongo dira eta antolatzaileen berbetan aukera izugarria izango da lehen eskutik euren berbak eta azalpenak entzun ahal izateko. Astelehenetik domekara 18:30etik 20:30era egongo da zabalik:

Jose Conceptesek ‘Begirada bikoitza: hutsunearn arkitekturak’ izeneko erakusketa eskainiko du; Jose Ramon San Josek ‘Errealitate konbergenteak’ erakusketa ekarriko digu; Gracia de la Hozek ‘Eserleku gorria’ proposamen bitxia ekarriko du gurera; eta Juan Antonio Palacios eibartarrak

‘7x7’ erakusketa eskainiko du etxean. Jose Carlos Romeroren erakusketa, ostera, Portalea Tabernan egongo da (astelehenetik zapatara 10:00etatik 21:00etara).

Portaleko erakusketez gain, beste bi erakusketa antolatu dituzte Deporrekoeak. Bata, klubeko argazki taldearena, Topalekuan; eta bestea, Argizaiola lehiaketaren argazkiekin, Deporreko egoitzan. Erakusketa biak hilaren gaurtik 26ra arte egongo dira zabalik: Topalekukoa, astelehenetik domekara 19:00etatik 21:00etara; eta Deporrekoa martitzenetik zapatara, 17:30etik 20:30era.

Argazkilaritza proiektua garatzeko tailerra

Bihar, hilak 10, Susana Giron andaluziarrak argazkigintza dokumentalaren inguruko tailerra eskainiko du ‘Unlimited jouth’ izenburuarekin. “Argazkilaritza proiektu bat nola garatu daitekeen jakiteko aukera oso ona izango da”, Deporrekoen berbetan.

Saioa 10:00etatik 13:45era eta 10:00etatik 20:00etara egingo da eta plazak mugatuak izango dira. Izenamateko 20 euro ordaindu beharko da eta argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzi behar da.

Argazkien galderei erantzuteko hitzaldia

Aurtengo berritasun nagusia hilaren 17an Piko Zuluetak eta Koldo Mendazak Portalean eskainiko duten hitzaldia izango da. ‘Emozio baten autopsia’ da hitzaldiaren izenburua eta Gasteizko bi argazkilaria eta maisu hauek argazkilaritza eragiten dituen galderei erantzunak ematen saiatuko dira.

Topaketa kalean

Zapatu horretan bertan, hilaren 17an, topaketa egingo da kalean, Untzagan hain zuzen ere, 17:00etatik 20:30era. Bertan, erretratoak egingo dira (Fotoprixen eskutik etxera eraman ahal izango dira argazkiak, doan), argazki-erakusketak egingo dira...

Argazki rallya

Argazkilaritza Maiatzean-ekin amaitzeko, hilaren 25ean-argazki rallya egingo da, Klub Deportibotik 08:30-09:30 inguruan abiatuta 13:30ean amaitzeko.

Deporrekoen berbetan, “rallya festa handia izaten da eta kanpoko jende asko etortzen da parte hartzera”.



Gaur emango zaio hasiera Argazkilaritza Maiatzean-eko egitarauari argazkilaria handien erakusketarekin



Goian, Gracia de la Hoz. Behean, Juan Carlos Romeroren lan bat.



Bulego taldearen Gure bihotzaren taupadak abestiaren Eibarko bertsioa eta bideoklipa

Martitzenean, maiatzak 5, argitaratu ziren Euskaraldiko abesti ofizialaren Eibarko bertsioa eta bertsio horri egindako bideoklipa. Jakingo duzuen moduan, bertsioaren ahots nagusia Jon Alonsok jarri du, eta ODE taldeak eta Eibarko Koro Gazteak ere lagundu dute. Bideokliplean Eibarko hainbat talde, eragile eta herritar agertzen dira.

Txapak banatzeko mahaia jarriko dute gaur Errebalen

Gaur, maiatzak 9, larrain dantzako entseguarekin batera, AKEBAIk eta Euskaraldiaren elkarte eta erakunde antolatzaileetako kideek Euskaraldiko txapak banatzeko dituzte Errebal plazan, 18:30etik aurrera. Izen-emate orriak eta Euskaraldiari buruzko informazioa ere egongo dira eskuragarri. Dakizuenetz, Euskaraldia euskara sustatzeko eta jende gehiagorengana hurbiltzeko ariketa soziala da, eta maiatzaren 15ean hasi eta 25ean amaituko da. Aurten laugarren edizioa egingo da, eta leloa "Elkar mugituz egingo dugu" izango da.



Euskaraldiko hasiera-ekitaldia maiatzaren 15ean

Euskaraldiko lehenengo egunean, maiatzaren 15ean, hasiera-ekitaldi bat egingo da Untzaga plazan, 19:00etan, Euskaraldia modu ezin hobean hasteko. Aldez aurretik, Latuna Bando txarangak giro-tuko ditu kaleak, eta 19:00etan ekingo zaio ekitaldiari Untzaga plazan egongo den oholtzan. "Bertan, ariketaren hasiera ospatzeko, abesti ofizialaren Eibarko bertsioaren zuzeneko emanaldia egingo da (Jon Alonso abeslariaren eskutik), eta txapa-jantze kolektiboa egingo dugu", aurrerratu dute AKEBAitk.

Bestalde, oraindik egin ez baduzue, gogoratu Euskaraldia amaitzen den arte (maiatzaren 25a) izena emateko aukera duzuela, norbanako edo entitate moduan, Euskaraldiko webgunean. Behin izena emanda txapak herriko hainbat lekutan jaso daitezke:

EUSKARA ZERBITZUKO BULEGOA
PORTALEA.

UDAL EUSKALTEGIA
PORTALEA.

AEK
Sostoa 1-1.

...eta kitto! Euskara Elkarte
Urkizu pasealekua 11.

ARMERIA ESKOLA
Isasi 36.

EIBARKO KLUB DEPORTIBOA
Toribio Etxebarria 16.





*Elkar mugituz
egingo dugu*



Najiba Benslaiman

Nola azalduko zenioke Euskaraldia horren inguruan ezer ere ez dakien norbaiti? Zer aldaketa gustatuko litzaizuke nabaritzea?



Jol Igartua

Zergatik iruditzen zaizu Euskaraldia garrantzitsua? Zer ohitura/joera aldatzeko asmoa duzu aurtengo Euskaraldian?

Euskaraldia 11 eguneko ekintza da. Jendeak euskara gehiago erabiltzea da kontua. Horretarako, jendeak bi rol hauta ditzake: Ahobizi edo Belarriprest. Alde batetik, Ahobiziak beti hitz egiten du euskaraz, hizkuntza ulertzen duelako; bestetik, Belarriprest da hainbeste hitz egiten ez duen pertsona, baina beti dagoena entzuteko prest.

11 egun horietan gustatuko litzaidake Eibarko eguneroko bizitzan jende gehiagori euskaraz hitz egiten entzutea: kalean, dendetan, lagunekin... Horrela, euskara loturarik gabe erabiltzeko moduko giro atsegina sortzen da.

Euskaraldia bezalako ekimenekin euskarari bultzada emateko aukera paregabea daukagu. Oso garrantzitsua iruditzen zait ariketa horren bidez gure hizkuntza ohituren gaineko hausnarketa egitea eta horiek aldatzea.

11 egun horietan nire gertuko lagun eta senideen artean, erdaraz egiteko ohitura daukadanekin, euskaraz egingo dut, gure arteko joera euskarara pasatzeko eta ohitura bihurtu dadin.





**EUSKARAZ BIZI
HITZETATIK EKINTZETARA ALDATZEN!**

aldatze 



2025EKO
MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*



ueu
udako
euskal unibertsitatea

Ostalaritzan euskara indartzeko mantelak banatu ditu ...eta kitto!-k

Maiatzean euskal giroa puri-purrian egongo dela aprobetxatuz (Euskaraldia, Tantan ez Tantan, Euskal Jaia), aste honetan banatu ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak Euskeraz primeran! ekimenaren barruan atera dituen paperezko mantelak. Otorduak eskaintzen dituzten taberna eta jatetxeetan banatu ditu, 60 establezimendutan, 15.000 mantel guztira. Elkartetetik diotenez, “tabernariaren eta bezeroen artean erabili ohi diren hainbat esaldi eta berba ageri dira: ogitartekoa, ebakia, zenbat da?, zer hartu nahi duzu?... Norabide biko

elementua da, ostalariengan eta bezeroengan eragitea du helburu, erabilerara bultzatuz, hizkuntzarekiko zalantzak argituz... azken batean ostalari eta bezeroen arteko euskarazko harremana erraztea du helburu ekimenak”. Bigarren aldia da euskara elkarteak mantelak banatzen dituen; orain dela hiru urte banatu zituen lehen aldiz eta, izandako harrera ona ikusita eta hainbat establezimenduk hala eskatuta, berriz banatzea erabaki du. Horrez gainera, azukre-zorroak eta serbilletak ere banatuko ditu elkarteak datozen asteotan



Euskeraz Primeran! ekimenean izena emanda dauden taberna eta jatetxeetan.

Euskararen olatua maiatzaren 23an ailegatuko da

Tantan ez Tantan, bi urtetik behin Eibarko euskalgintzak antolatzen duen euskararen aldeko olatua, maiatzaren 23an iritsiko da gure herrira. Orain dela bi urte egin zenari jarraituz, aurten ere barixakuan egingo da ekimena, Euskal Jaiarekin bat eginez. “Naturala eta logikoa iruditu zitzaigun orduan euskararen aldeko jai honek eta Euskal Jaiak bat egitea eta aurten ere bide beretik joko dugu. Demaseko giroa sortu zen eta sortuko da aurten ere”. Horretarako euskaltzaleon parte-hartzea ezinbestekoa dela diote euskalgintzatik eta, “dei egiten diegu herritar guztiei Urkizu eta Untzaga elkartzeko dituen giza katean egon daitezen”. 19:00etan irtengo da gantxilla Urkizuko iturritik eta, ohikoa den moduan, eskutik eskura eramango dugu Untzagaraino, euskararen aldeko olatua irudikatuz. Antolatzaileek arropa urdina eta koadrodun zapia soinean eramateko deia ere egin dute.




Hemen da berriz afizionatuen mailako proba erregina

Eguaztenean aurkeztu zuten Udaletxean domekan jokatu den Valenciaga Memorialaren 54. edizioa, Elite eta 23 urtetik azpiko txirrindularien mailetako Espainiako Koparako proba puntuagarria. Lasterketa goizeko 09:00etan abiatuko da eta, 165 kilometroko ibilbidea osatuta, 13:00 pasata amaituko da T. Etxebarria kalean.

Berritasunen artean irteera puntua aipatu dezakegu, oraingoan helmugako tokitik abiatuko baitira partehartzaileak, zirkulaziorako kontrako norabidean Julian Etxeberriatik Bidebarrietara jo eta handik Apalategiraino joanda, bertatik lasterketa hasteko. Proban 1. mailako Ixua izango dute zailtasun handiena (helmugatik 27 kilometrora), 2. mailako Azkarate eta Elgeta, eta 3. mailako Elkorrieta, Meagas, Areitio eta San Miguelekin batera, etengabeko igoera eta jaitsierez osatutako

ibilbidean. Debatik Itziarrera doan bidea itxita dagoenez, Sasiolatik Lasturrera joango dira oraingoan eta, behin Itziarrera helduta, Zarautzeraino joko dute, handik bueltan Azpeitiatik Elgoibarrera jaitsi eta, Maltzagan jiratuta, Bergaratik Eloorriarako bidea hartzeko, ondoren Areitio harrapatu eta Ermutik Eibarrera etortzeko. Gurean sartu eta Amañatik hartuko dute saihesbide edo bariantea Ixuaren bila joateko eta, behin Etxeberriara jaitzita, San Migueleko azken gaina geratuko zaie txirrindulariei helmugaren bila



Aurtengo ediziorako egindako kartela

etorri aurretik. Amaiera 13:10erako aurreikusten da, lau orduetik gora iraungo duen proban.



Eibarko Klub Deportiboko taldea ahaleginduko da bere aurpeirik onena erakusten.

Herriko ordezkariak

Valenciaga Memorialean hartuko du parte Eibarko afizionatuen mailako taldeak ere, Eibarko Klub Deportiboak. 15 txirrindularik osatzen dute denboraldi honetako taldea, "eliteko hiruk eta 23 urtetik beherako beste hamabik" Galder Lasuen taldeko zuzendariak dioskun bezala. Berako nafar bat kenduta, beste guztiak gipuzkoarrak dira, tartean eskualdeko bi: "Mendaroko Aritz Esnaola dago Iker Goikoetxea eibartarrekin batera; eta badugu asmoa beste eibartar bat ere sar-

maiatzak 11 (EIBAR-EIBAR)



GARAILEA



MENDIA



23 URTEK AZPIKO ONENA



SAIATUENAREN SARIA



TARTEKO HELMUGAK



SPRINT BEREZIAK



LEHEN EUSKALDUNA



LEHEN GIPUZKOARRA



TALDEKAKO SAILKAPENA



Udaberri Proba (Juniorrak)



CCE Saria (Kadeteak)

VII. EIBARKO HIRI
SARI NAGUSIA
(UCI PRO)

San Juan Saria (Juniorrak)

LAGUNTZAILEAK

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- SD Eibar Fundazioa
- Laurel & Hardy Pub
- Izadi Loradenda
- Oria Sport Wear, S.L.
- Beltran Igogalluak
- Goritz Hornikuntzak, S.A.
- Soraluze S. Coop.

- Ruibal
- Manufacturas GES
- TAES
- Urkotronik
- Dario Autobusak
- Alkideba
- Ongi Etorri Taberna
- Ixua Hotela
- MTE

- Tekniker
- Arkupe Taberna
- Guridi taberna
- S.C.R.G. Kamarroak
- Kalaka Taberna
- Buenos Aires Taberna
- As Burgas Casa de Galicia
- Casa Cantabria

Harririk handiena jasotako eibartarra ezustean joan zaigu

Dioni Kortina orain arteko pisu gehieneko harria jaso duen Eibarko gizasemea maiatzaren 1ean hil zen, 59 urterekin. Marka horren jabea gure herriko ordezkari nagusia izan da, Ernesto Ezpeleta "Bihurri"-rekin batera, herri-kirol munduan. Hortik kanpo ere, hainbat ekimeneetan parte hartu izan du eta, esate baterako, berak bultzatu zuen urteroko Amañako Wenzeslao Orbea kaleko jaiak. Hortik aparte, beste hainbat hemengo eta hemendik kanpoko auzoetako jaietan hartu izan du parte, batez ere herri-kiroletako ikuskizunekin lotutako saioetan. ...eta kitto! astekariak urtero Gabon Zahar egunean antolatzen duen Eibarko Kirol Sarietan ere, kalerik egin gabe, izan dugu lagun edizio guztietan herri-kirolaren arloko sariak banatzen. Asteburu honetan



bertan, Galiziako Etxeak antolatzen duen gure herriko Dia das Letras Galegas-en ere ondo igarriko dute Dioniren falta, horko erakustaldian speaker lanetan jardundakoa izan delako azken urteotan.

Bere kirol ibilbideari erreparatuz, 19 urterekin hasi zen harriak jasotzen, sasoi bateko SD Eibarko "La Bombonera"-ko zaletuek proposatutako desafio bati erantzunez. 1997ko maiatzaren 24an ezarri zuen gaur ere eibartarron artean indarrean dagoen marka, 200 kiloko harri kubikoarekin. Ipurua kiroldegian egindako jaialdian bigarren saiakeran jaso zuen aipatutako harria, aurretik 196 kilotan zuen marka gaindituz. Aginagako harrijasotzailearen balentriak oihartzun handia izan zuen, batez ere ohiko harrijasotzaileak baino



Hemendik gutxira beteko dira 28 urte Kortinak marka ezarri zuenetik. Irudian orduan eskaini genion azala.

txikiagoa zelako Kortina: ordukoan 90 kiloko pisua zuen 1'70eko altuerako kirolariak. Jaialdian, zelan ez, Bihurri aizkolaria izan zuen betiko lagun, eta azken horrek ere bere marka pertsonala ezarri zuen, 10 kanaerdikotan 26 minutu eta 12 segundoko denborarekin.

Herriko pilotariak inoiz baino txapelketa gehiagori aurre egiten

Urteroko ohiko torneotik aparte, oraingoan aspalditik parte hartzen ez zuen federatuen mailako Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa historikora bueltatu da Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak. Aurreko asteburuan debutatu zuten torneo horretan eta, Astelenan jokaturako jardunaldian, gauza izan ziren eibartarrak Usurbilgoei 2-1 irabazteko (etxeko kadeteak eta seniorrak garaile izan ziren, jubenil bikoteak galtzen zuen bitartean). Gaur bertan itzulerako jardunaldia izango dute Usurbilen: aurrera egiteko bi partidu irabazi beharko dituzte edo, bestela, bakarira irabazita, tantoen arteko aldea hartuko da kontuan



Herriarteko Txapelketan parte hartzen duen Eibarko ordezkariak.

final-zortzirenetarako txartela zainek jaso erabakitzeko. Bestalde, he-

rriko kadete, jubenil eta seniorrek Debarroko Txapelketan dihardute jokatzen burubelarri azken asteotan. Gainera, aurtengo 76. edizioa Klub Deportiboari dagokionez antolatzea, bertako finalak Astelenak hartuko ditu ekainaren 15ean egingo den jaialdi berezian. Aurrekoez gain, pilotari federatuak Gipuzkoako 4 t'erdikoan daude murgilduta, eta gaztetxoek probintziako Udaberri Torneoarekin jarraitzen dute.

Astelenak gaur 18:00etan abiatuko den jaialdian Udaberri binaka errendimenduko bi partidu hartuko ditu eta kaiolaren barruko beste hiru, Conde, Iraolagoitia eta Amua-tegiren parte-hartzearekin.



Aurreko asteburuan Granadan Kopa txapelketa jokatu zuen oinarrizko kadete taldea.

Azken txapelketak Ipuruako gimnastentzat

Maiatza azken txapelketen hila-betea da gimnasia erritmikoaren egutegian eta, horrela, hurrengo asteburuetan Gipuzkoako Eskola eta Amateur Txapelketak jokatu-ko dira. Bihar Eskola Txapelketa izango da Irunen, Ipurua klubeko bost talde eta 13 bakarkakoen parte-hartzearekin. Domekan Federatuek izango dute hitzordua Azkoitia: bertan banakakoen Euskadiko

Txapelketa jokatu-ko da, Espainia-ko txapelketarako sailkapena erabakitzeko. Hilaren 17an Amateurren txanda izango da Eibarren, eta etxean jardungo dute hiru taldek eta 13 banakako eibartar, Gipuzkoako txapelaren bila. Horko sailkapena erabakiorra izango da maiatzaren 25ean eta ekainaren 3an jokatu-ko den Amateurren Euskadiko Ligan parte hartu ahal izateko.

Mikel Zabalak eskubaloia laga du

Irungo Bidasoarekin zazpi denboraldi egin ondoren lagako du eskubaloia Eibarko hegalekoak. Mikel Zabalak kontratua zuen Iru-duk Bidasoarekin beste denboraldi baterako, baina eibartarrak nahia-go izan du orain arte eskubaloian egindako ibilbidea ixtea, "Bidaso bezalako talde batean ezin zarelako erdizka ibili".



Hiru mendi-irteera zain eta, maiatza amaitzeko, Udaberritraila

Klub Deportiboko mendi batzordeak bi irteera antolatu ditu astebururako: zapatuan Urtasunetik Olaguera joango den irtenaldia, Mendebaldeko Pirinioetan barrera, mendiko korrikalientzat sortutako "Nafarroa Xtrem" izeneko lasterketa oinarritzat duen GR 322a; eta domekan haurren-

tzako ikasturteko zortzigarren eta azken irteera, Larraitzetik Zaldibiara joango dena, Ausa Gaztelutik pasatuta. Hurrengo astebururako bi eguneko (zapatua eta domeka) irteera antolatu dute Burgos eta Palentziara, "irteera-mota berria eta egiteko erraza". Peña Amaya egingo dute lehenengo egunean eta

Santiago bideko Itero de la Vega eta Fromistaren artekoa bigarrenengan. Komeni da lehenbailehen izena ematea bertan parte hartzeko.

Bestalde, Kalamua Korrikalari Taldearekin antolaturiko urteko bigarren trail irteera hilaren 28an egingo dute. Goizeko 08:30ean ir-tenda, 16,8 km eta 848 metroko igoera metatua duen ibilbidea burutuko dute Eibarko hegoaldeko mendietatik. Ibilbide desberdina izango da, txoko berriak ezagutzeko aproposa: Depor - Sautxi - San Salvador - Aingeruarda - Azkonabieta - Asurtzagaina - Unbe - Ipurua - Ubitxa. Beraz, Eibar inguruko mendietako bidezidor berriak ezagutzeko irteera aproposaren aurrean gaude. Aurrez izena eman behar da bertan parte hartzeko.



Aurreko trail batean Azkonabietan ateratako talde-argazkia.



Umorearen erreferente izateko gogoz



Komediafest umore eta bakarrizketa jaialdiaren lehen edizioa biziko dugu aurten. Hilaren 16an, barixakuan, Alex O'Dogherty umoregileak Coliseo antzokian eskainiko duen saioarekin emango zaio hasiera La Algaban (Sevilla) jaiotako Nacho Prado eibartarrak bultzatutako ekimenari, eta irailetik azarora arte sei umore ikuskizun eskainiko dira, horietako bat euskaraz.

Informazio gehiago
Komediafesten webgunean



Alex O'Doghertyk estreina-tu berri duen ikuskizuna ekarriko du gurera: 'Palabras mayores'. Umoregile andaluziarrak urteak daramatza eszenatoki gainean, baita musikari eta aktore lanak egiten ere, eta Nacho Pradok ondo ezagutzen du. "Madrilen komunikazio-aholkularitzan eta ikuskizunen antolakuntzan egiten nuen lan, eta Alex O'Doghertyren marketing taldean lanean hasi nintzen. Horrela, kulturaren mundua barrutik ezagutu nuen", azaldu digu.

Bizitzak, ostera, Eibarrera ekarri zuen. "Bikotea eibartarra dut eta, seme-alabak edukitzea pentsatu genuenean, Sevillara edo hona etortzea erabaki behar izan genuen... eta hemen gaude", aitortu digu. Gauzak horrela, Eibarko eta Euskal Herriko idiosinkrasia ezagutzen joan zen, eta ikusi zuen euskara jakin barik zaila egingo zitzaioala komunikazioaren munduan bidea egitea. "Mundu guztiari gomendatuko nioke euskara ikastea", diosku. Euskarazko berba batzuk badakizki, baina ikasi bitar-

tean herriari zerbait eskaini nahi ziola pentsatu eta aukera bat ikusi zuen: umore jaialdi bat sortzea. "Euskadiko erdigunean bizi den jendea hiriburuetara joan behar izaten da umorezko ikuskizunak ikustera".

On Ekin-en bultzada

Ideia horrekin proiektua garatu zuen eta Ekingunek antolatzen duen On Ekin sarietara aurkeztu zen, publikoaren saria jasoz. "Horrek demaseko bultzada eman zidan proiektua aurrera eramateko", aitortu digu Pradok. Beraz, buruan zuen ideia borobiltzen joan zen eta, azken xehetasunen faltan, prest du Komediafesten lehen edizioa.

Prado da proiektu horren burua, berea da ideia eta berak egin du ia lan guztia, baina alboan izan dituen laguntzaileen babesa eskertu nahi du. "Ekinguneko Leticia Sanchezek asko lagundu dit komunikazioaren arloan, eta elkarteko beste hainbat kidek ere laguntza eskaini didate. Oso eskuzabalak dira. Indibidualismoan baino, kolektiboan asko



Alex O'Dogherty (bigarrena ezkerretik hasita) izango da Nacho Pradok (lehenengoa eskumatik) antolatu duen Komediafest-eko zazpi umoregileen artean lehen gonbidatua.

sinisten duen pertsona naiz”, diosku Ekingunek duen balioa nabarmenduz. “Gauza ezberdin asko egiten dituen jendea dagoenez, batak besteari laguntzeko aukera gehiago dago”. Horrez gain, Rafa Lucas lagunak arteari dagozkion lanak egiten laguntzen dio eta euskarazko itzulpenak bere neskalagunaren esku laga ditu. Beraz, Pradok dioen bezala,

“antolakuntza ekonomikoa izateaz gain, artisau-lana izan da”.

Beste sei ikuskizun

Artisau-lan horrekin, O'Doghertyz gain, ezagunak diren beste sei umoregile etorriko dira irailetik azarora arte. “Oraindik ezin dugu artisten izenak jakinarazi, baina itxita dugu euren parte-hartzea”, aurrera-

tu digu. “Alex O'Doghertyren mailako artistak izango dira”.

Umoregile esanguratsuak ekartzeaz gain, Komediafest umorea egiten hasten ari diren eta euskal umoregileen bultzatzaile izatea nahi du Pradok, eta euskarazko saioak ere eskainiko dituzte. “Komediafest Euskal Herrikoa eta euskaldunena izan dadila nahi dut”, diosku.



ELGETAN

- Enpresako BISITAK edota langileentzako LANDETXEA.
- GOSARIA barne, LOGELA zabalak eta izugarritzko BISTAK.
- Lasaitasuna eta diskrezioa.

B&B Eguzkitza

HARREMANETAN JARTZEKO:

688 615 600

www.eguzkitzaetxea.eus








JONE BENGOA • Ilustratzailea eta umoregilea

“Umoretik aritzea errazagoa eta dibertigarriagoa da”

Ilustrazioei umore puntua jartzen hasi eta bakarrizketak egiten amaitu du Jone Bengoak, besteak beste. Besteak beste diogu, beste zenbait saltsatan ari delako sartuta, baina denetan sormena du lagun. Sormena eta lagunak, kuadrillakoekin ere badabilelako gauzatxoak egiten.

Ilustratzaileaz gain, ilustrera ere izan da. Gogoratzen duzue aratosteetan brontzeko figurez mozorrotu zen kuadrilla? Ba ikusi nork daraman Sanblasa. Kuadrillako batzuekin jarri du martxan ‘Bi ta piku’ proiektua eta bere gauzekin ere denda du sarean: www.merketenge.com. Eta hori gutxi balitz, ETB-n hasi berri den Linbo saioan gidoilari dabil.

Hainbeste gauzen artean, eta Instagrameko profilean (@ben_go_a) esaten duzunari jarraituz, badakizu zertan zabiltzan? Nik neuk ez dakit eta jendeak ere ez daki zertan nabilen. Bizitzan aldaketa asko eduki ditut azken aldian eta bai, galdua nago. 30 urte beteko ditut laster, krisi konstantean... Ez dakit zertan nabilen, baina banabil.

Zure Instagrameko kontuan behera eginez gero, ilustrazioekin egiten dugu topo. Horiek ez ziren hain umoretsuak, aldarrikapenetik zuten gehiago. Zergatik hasi zinen lan horiek plazaratzen?

Sare sozialak modan jartzen hasi zirenean ez nuen nire argazkirik jartzeko gogorik. Beraz, marrazkiak jartzen hasi nintzen, eta horrela, nire Instagrameko kontu pertsonala ez zen oso pertsonala. Zenbait mezu edota nire ezinegonak bidaltzeko plataforma bezala erabiltzen hasi nintzen, eta modu ona izan da.

Guk emaitza ikusten dugu eta, orain, zure lan bat ikusita zuk egindakoa dela jakin

dezakegu. Baina nolako lana dago atzetik estiloa eta abar zehazteko orduan?

Gertatzen zaidana da orokorrean buelta asko emate dizkiedala gauzei. Beraz, saiatzten naiz buelta larregirik ez ematen. Estiloa eta horiek guztiak planteatzen hasten banaiz, azkenean ez dut ezer egingo. Beraz, nahiago dut egin eta kitto. **Azken aldian partekatzen dituzun bintetan irudiek nahiko sinpleak dirudite, zuri-beltzean. Baina tira, askotan esan ohi da gauza bat sinplea dela irudikatzea izaten dela zailena?**

Irudiak sinpleak dira, baina ulergarriak izateko eta denok identifikatuta sentitu ahal izateko oinarri bat eduki behar duzu, irudian agertzen dena pertsona bat, aulki bat edo dena delakoa ikusteko behintzat. Badago lanketa, bizitza guztian egon naitzelako marrazten, baina orain momentuan irteten dena egiten dut.

la hasieratik ikusi izan da umorearekiko eta hitz-jokoekiko duzun joera. Pauso naturala izan da?

Bizitzan gauzak nola hartu izan ditudan jarrerarekin bat egiten du joera horrek. Orain dela hamar urte gauzak askoz ere serioago hartzen nituen, edo pisu gehiagorekin, eta gero gauzak beste modu batean edo filosofia gehiagorekin hartzen joan naiz. Hau da, gaiak umoretik jorratzen, errazagoa eta dibertigarriagoa delako, eta nahiago dudalako. Gainera, umoreak ez dio garrantzirik kentzen





Umorea lagun, artista polifazetikoa da Jone Bengoa. EKHI BELAR

“Oso erraz harrapatzen eta kontsumitzen den zerbait egitea gustatzen zait, azkartasun hori”

igorritako mezuari eta mezuak irisgarriagoak dira.

Ilustrazioak eta binetak gauza ezberdinak dira. Nola uztartzen dituzu?

Bi arloak gustatzen zaizkit, bietan kontatzen dudalako istorio bat. Agian pasarte edo txiste batzuek testuarekin bakarrik funtzionatuko lukete, baina irudiak istorio bat kontatzen du. Oso erraz harrapatzen eta kontsumitzen den zerbait egitea gustatzen zait, azkartasun hori. Harira etortzen saiatzen naiz.

Zaila izango da ba hain elementu gutxirekin istorio bat kontatzea, mezu bat igortzea, pentsaraztea, barrea eragitea...

Bai, eta sinpletasunak horretan laguntzen du. Horregatik gustatzen zait gauzak are eta sinpleagoak egitea eta ahalik eta elementu gutxien erabiltzea. Errazago ulertzen delako eta ez garelako galtzen asko eskaintzen ez duten xehe-tasunetan.

Ilustrazioetatik eszenatokitara. Nola

eman zenuen bakarriketak egiteko pausoa?


Orain ez dakit zergatik egiten dudan hori, horretarako bai behar dudala kamiseta (barreak). Stand up-a beti gustatu izan zait eta, krisi existentzial honetan, “zergatik ez?” esan nuen. Horretan zebilen jendea ezagutu nuen eta identifikatuta sentitu nintzen, ez zekitelako ondo egiten, kostatzen zitzaielako eta horrela. Probatzera animatu nintzen, zerbait idatzi nuen eta, beste batek interpretatu beharrean, nik egitea erabaki nuen. Eszenatokia ez da toki eroso niretzat, baina paniko eszeniko hori gainditu nahian nabil.

Zer moduzkoa izan da orain arteko esperientzia?

Dibertigarria eta arraroa. Batzuetan hurrengo egunean demaseko krisi edo bihar-ramun emozionala edukitzen dut, eta beste batzuetan oso pozik amaitzen dut. Askotan ez dut gogoratzen eszenatokian zer gertatu den ere.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	8		7	9		
6				4		3
	1	3		6		
		9	8			
	5	1	2		3	8
				7	3	
			3	6	4	
4		6				1
		7	5		3	





soluzioa

S U D O K U

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			7	6		
			1		3	
		6	4	2	9	
	2	4		7	3	5
1				8		
						6
	9	7	5		2	8
		6	7	2	9	
	7		1			
		9	3			

soluzioa



L A B I R I N T O A



AURRE-MATRIKULA

MAIATZAK 5etik 23ra



MERKATARITZA



ADMINISTRAZIO
ETA
KUDEAKETA



ZUZENERA
FISIKOAK
ETA KIROLAK



INFORMATIKA
ETA
KOMUNIKAZIOAK



IZENA EMAN
☎ 943 89 92 11
www.uni.eus



Oskorri Hiribidea, 28
 20600 Eibar, Gipuzkoa
 943 89 92 11
matriculada@uni.eus
www.uni.eus



EIBAR UNIBERTSITATEA
 EIBARREN UNIBERTSITATEA
 EIBARREN UNIBERTSITATEA

* IKASTETXE PUBLIKO DOAKOA

zarelakogara

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

URTEKO KUOTA

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuek	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Norberak nahi duen kopurua (horri ere errenta aitortuenean %30 itzuliko zaio)			

eta kितto!
euskara elkarteak

Tel. 943 20 09 18 elkartea@etakitto.eus
www.etakitto.eus



Hasi dira Gure Zirkua ikusteko sarrerak saltzen

Gure Zirkua Arraten egongo da ekainaren 20tik uztailearen 5era, eta aste honetan hasi dira sarrerak saltzen, <https://www.gurezirkua.eus/atarian>. Guztira 11 emanaldi eskainiko dituzte gurean: ekainak 20, barixakua (19:00); ekainak 21, zapatua (12:00); ekainak 22, domeka (19:00); ekainak 26, eguna (19:00); ekainak 27, barixakua (19:00); ekainak 28, zapatua (12:00 / 19:00); ekainak 29, domeka (19:00); uztaileak 4, barixakua (19:00); eta uztaileak 5, zapatua (12:00 / 19:00).



Pagatxaren zine-forum saioa atzeratu egin dute

Pagatxa emakumeen elkarteak hilero antolatzen duen zine-forum saioan azken orduko aldaketak egin behar izan dituztela jakinarazi nahi diote jendeari: “Maiatzaren 23rako zegoen aurreikusita, baina egun horretan Tantan ez zegoen erabakirik, eta hori ikusita beste egun batean egitea erabaki dugu. Horrela, maiatzaren 30era atzeratu dugu. Bestela, betiko moduan Portalean izango da, 18:30ean”. Hilabete honetarako aukeratu duten filma Barbra Streisandek zuzendutako “Yentl” da.



Rouhafa Kassem palestinarren erakusketa

Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek erakusketa zabalduko dute maiatzaren 17an, Untzaga gizarte zentroan, Rouhaifa Kassem artista palestinarren lana ezagutzera emateko. *Palestina, causa y lucha. Emakume palestinar baten begirada Euskal Herriatik* izenburuko erakusketan artistaren marrazki eta margolanak ikusi ahaliko dira, eta maiatzaren 21era arte egongo da zabalik, astegunetan 19:15etik 21:00era, eta 12:00etatik 14:00etara zapatuan eta domekan.

Hiltzeko prozesuaren kalitatea aztertzeko boluntario bila



“Heriotza prozesuaren kalitatea”. UPV/EHU eta DMD-DHE (Derecho a Morir Dignamente-Duintasunez Hiltzeko Eskubidea) Psikologia Fakultate-tik ikerketa egiten ari dira, gure testuinguruan hiltzeko prozesuaren kalitatea aztertzeko helburuarekin.

Horretarako, boluntarioei inkesta bat betetzeko eskatzen diete. Ikerketaren gaia dela-eta, azterketan parte hartzeko baldintzak pertsonaren bat galdu izana eta haren heriotza-prozesuarekin kontaktua izatea dira. Parte hartu ahal izateko baldintzak eta bestelakoak azaltzeko saio informatiboa egingo dute maiatzaren 14an (eguztasuna), 18:30ean, Portaleko areto nagusian. Ikasten elkarrekin batera antolatu dute.



80. hamarkadako Euskal Jaieen inguruko solasaldia

Ohikoari jarraituz, maiatzeko azken asteburuak hartuko ditu Eibarko Euskal Jaieen egitarauko ekitaldi gehienak, baina Klub Deportiboko Kultura batzordekoek datorren asterako hainbat ekimen dituzte programatuta. Horrela, eguaztenez solasaldia egingo da Klub Deportiboan, 19:30ean hasita, aurreko mendeko 80. hamarkadako Euskal Jaieen inguruan berba egiteko. Ana Mallagarai, Jon Lopez de Gereñu "Piti", Iñaxio Abanzabalegi eta Iñaki Osorok osatutako laukoteak Leire Narbaiza eta Irati Azpilikueta moderatzaileen laguntza izango du ekitaldian. Hurrengo egunean (hilak 15), Euskaraldiaren hasiera aprobetxatuz, euskararen aldeko ekimen horretako aurkezpen ekitaldia egingo dute Untzagan, Akebairen eskutik. Handik bi egunera, zapatuan (hilak 17), kontzertua eskainiko du Euskelga taldeak Depor parean, arratsaldeko 20:15ean hasita.



Esteban Orozen margolanak Elgoibarren ikusgai

Esteban Orozen erakusketa zabalduko dute gaur Elgoibarren. Maiatzaren 25era arte egingo da ikusgai, bertako Kultur Etxeko erakusketa gelan. Ordutegia hau da: 18:30etik 20:30era, astelehenetik zapatara.



Euskal Jaiko bazkarirako eta kantu afarirako txartelak

Maiatzaren 21era bitartean egingo dira salgai Klub Deportiboko egoitzan Euskal Jaiko kantu afarirako eta herri bazkarirako tiketak. Kantu afaria maiatzaren 24an, zapatua, egingo da; eta hurrengo egunerako, domekarako, antolatu dute herri bazkaria. Biak Untzagako karpan egingo dira. Kantu-afariaren prezioa 20 eta 25 eurokoa izango da (20 euro ikasle eta langabetuek, 25 euro langile eta dirua dutenek), eta kateringa Harakintzaren ardura izango da. Ekitaldiaren barruan Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldeak joko ditu afalduosteko abestiak, eta ondoren gau girotua egingo da DJ Miren G-rekin. Herri-bazkariaren prezioa bost euro merkeago da kasu bietan, hau da, 15 eta 20 euroren artekoa. Ondoren, "Patxi eta Konpañia"-rekin erromeria egingo da.

Xabier Mendaraz fisioterapeutarekin hitzaldia antolatu du Udal Euskaltegiak

Eibarko Udal Euskaltegiaren 40. urteurrena ospatzeko programazioaren baitan, Xabier Mendaraz fisioterapeutarekin hitzaldia antolatu dute maiatzaren 14rako, 10:00etan Portalean. Fisioterapien diplomatu izateaz gain, Mendarazek esku-terapien master ofiziala du, Madrilgo Europar Unibertsitatean, eta Espainiako Kiropraktika Elkarteko kidea ere bada.





Jose Angel Olarte Calleja

2025/05/03

ESKERRIK ASKO
une latz hauetan
gurekin egon zareten
lagun eta familiako
guztioi.



- ETXEKOAK -



Ion Cortina Guisasola "Dioni"

2025/05/01

ESKERRIK ASKO
une latz hauetan
gurekin egon zareten
lagun eta familiako
guztioi.



- ETXEKOAK -



Edurne Aizpuru Aizpuru

2025/04/25

ESKERRIK ASKO
une latz hauetan
gurekin egon zareten
lagun eta familiako
guztioi.



- ETXEKOAK -

Susana Orrantia Gonzalez

2. URTEURRENA
2023/04/29



"Beti gure bihotzetan"

MAITE ZAITUGU
- ETXEKOAK -



Jose Abalos Hermosilla

5. URTEURRENA
2020/05/05

**"Maite zaitugu.
Betirako izango
zara gure
bihotzetan"**



- ETXEKOAK -

Esteban Plazaola Zubizarreta

8. URTEURRENA (2017/05/03)



Maiatzak 3an, 8 urte dagoeneko.
Sekula baino presentago zaude
gure bizitzan eta, batik bat,
gure bihotzetan.

ESKERRIK ASKO,
8 urte hauetan dirdira handiena
egiten duen izarra izateagatik.



MAITE ZAITUGU (ZURE EMAZTEA ETA ALABAK)

Maiatzak 9/15

BARIXAKUA 9

ESKUBALOI EGUNA

18:00/19:15 Txosna irekiera, aurkezpena eta talde-argazkia. Untzaga.

EUSKARALDIA

18:30 Txapak banatzeko mahaia. Erreal Plaza.

INAUGURAZIOA

19:00 Argazkilaritza Maiatzean egitasmoko erakusketak zabaltzea. Portalea.

DIA DAS LETRAS GALEGAS

19:00 Taberna zabaltzea. Kalejira, Os Galaicos eta Eibarko Trikitilarien eskutik. Pailazoan ikuski-zuna, umeentzat, Lekim Animaciones-en eskutik. **22:00/01:30** Musika eta dantza, Alabama orkestrarekin (00:00etan etenaldia, Queimada egiteko). Urkizuko parkea.

OPERA

19:30 "La rondine", Giacomo Pucciniren operaren proiektzioa. Coliseo.

ZAPATUA 10

ARGAZKILARITZA

MAIATZEAN

10:00/13:45 eta 16:00/20:00 Argazkilaritza-tailerra, Susana Gironekin. Portalea.

ESKUBALOI EGUNA

10:00/21:30 Multikirolak, kalejira, herri-bazkaria, partiduak eta kontzertuak.

ROL JOKOAK

10:30/14:30 eta 16:00/20:00 "Heroes de grafito", Odisea elkartearen eskutik.

ERREAL PLAZIA.

UDABERRI AZOKA

11:30/14:30 eta 17:00/20:00 Udaberri Azoka. Ipuruako Merkatu Plaza.

DIA DAS LETRAS GALEGAS

11:30 Umeendako "chave" jaurtiketa, sariekin.

12:00 Herri-kirolak: aizkolaria eta harrijasotzaileak.

13:00 Ume eta helduendako igel-toka.

16:00 "Chave" jaurtiketa, helduentzat. Sariekin.

18:00 Musika eta dantzak: Os Galaicos taldea eta Academia de baile Eva.

22:30/02:00 Musika eta dantza, Suavecito orkestrarekin (00:00etan etenaldia, Queimada egiteko).

BISITA GIDATUA

12:00/14:00 Gerrako Fronteko lehen saioa. Euskaraz. Doan. Gerra Zibilaren Interpretazio Zentroa (Arrate). Mendi ibilbidea.

SANTA KURUTZ JAIK

19:00 Musikarekin girotutako poteoa, Untzagatik hasita.

21:00 Bertso-afaria, Julio Soto eta Joanes Illarregirekin. Depor taberna.

DOMEKA 11

TXIRRINDULARITZA

09:00 54. Valenciaga Oroitzarrea. Untzaga.

ESKUBALOI EGUNA

10:00/14:00 Txosna eta zozketak.

UDABERRI AZOKA

11:00/15:00 Udaberri Azoka. Ipuruako Merkatu Plaza.

DIA DAS LETRAS GALEGAS

12:00 Galiziako eta Euskal Herriko dantzen erakustaldia: Os Galaicos, Kezka dantza taldea eta Eibarko Trikitilari taldea.

14:00 Castelaoren oroitarriari lore-eskaintza.

15:00 Luntxa, jaien antolatzaileentzat, lagunentzat eta herriko agintarientzat.

16:30/18:30 Mahai-jokoak, Odisea elkartearekin.

18:00/22:00 Rock You taldearen emanaldia.

22:00 Amaiera. Urkizu.

ASTELEHENA 12

BERTSOLARITZA

18:00 "Gu ere bertsotan" bertso jaialdia. 3 euro. Coliseo.

MARTITZENA 13

ANTZERKIA

15:00 "Scrooge eta mamuak" (Khea Ziater). Debabarreneko XL.

Eskolarteko Antzerki Erakusketa. Coliseo.

BIDEO-FORUMA

18:00 Emakumeen Istorioak: Chavela Vargas. Dinamizatzailea: Shakti Olaizola. Sarrera librea. Andretxea.

EGUAZTENA 14

IPURTERRE

10:00 XXXI. Ipurterre Ipuin lehiaketako sari-banaketa. Coliseo.

HITZALDIA

10:00 Xabier Mendaraz fisioterapeuta, Eibarko Udal Euskaltegiaren 40. urteurrena ospatzeko. Sarrera librea. Portalea.

BERTSOLARITZA

18:00 "Gu ere bertsotan" bertso jaialdia. 3 euro. Coliseo.

GIZA LIBURUTEGIA

18:30 Giza Liburutegia. Juan San Martin

Liburutegia (Ikasgela).

HITZALDIA

18:30 "Heriotza prozesuaren kalitatea". UPV/EHU eta DMD-DHE Psikologia Fakultatetik egiten ari diren ikerketari buruzko saio informatiboa. Sarrera librea. Portalea.

19:00 Sanjuanetarako entsegu, haurrentzat.

DANBORRADA

19:00 Sanjuanetarako entsegu, haurrentzat.

20:00

Helduentzat. Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa kalea).

EUSKAL JAI

19:00 "80ko hamarkadako Euskal Jaiak" solasaldia, Ana Mallagarai, Jon Lopez de Gereñu "Piti", Iñaxio Abanzabalegi eta Iñaki Osoro. Moderatzaileak: Leire Narbaiza eta Irati Azpilikueta. Eibarko Klub Deportiboa.

EUSKAL JAI

19:00/21:00 Larrain dantza erreposoa. Arrateko Andra Mari ikastetxea.

EGUENA 15

HITZALDIA

10:00 "La importancia de Alberto Durero en el arte y el enigma de la melancolonia", Jose Ignacio Olaveren eskutik. Antolatzailea: Ikasten. Sarrera librea. Armeria Eskola.

BEGI BISTAN

10:30/12:30 Entitateen arteko lankidetzari eta bizikidetzari buruz hausnartzeko ekitaldia. Sarrera librea. Coliseo.

SAN ISIDRO

11:00 Meza, bertsolari eta trikitilariekin. Jarraian prozesioa eta aureskua, Kezka Dantza Taldekoekin. Eguerdian, Debabarreneko produktuen dastaketa eta herri-kirolak. Bazkaria baserritarrentzat. Ondoren, bertsolari eta trikitilariak.

17:30

Idi-demak. Arrate.

HITZALDIA

18:00 "LGTBI+ fobiaren dimentsioak: zer esan nahi du batez ere emakume lesbiantzat ikusgai izateak". Gazteleraz. Hizlaria: Bea de Lucas Larrea (Aldarte). Sarrera librea. Andretxea.

BERTSOLARITZA

18:00 "Gu ere bertsotan". 3 euro. Coliseo.

EUSKARALDIA

19:00 Euskaraldiaren aurkezpen-ekitaldia. Untzaga.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **10ean:** 19:45, 22:30
- **11n:** 20:00
- **12an:** 19:30

“La buena letra”
DRAMA



2025/Espainia/110'
Zuzendaria: Celia Rico
Aktoreak: Loreto Mauleon,
Enric Auquer, Roger Casamajor
40. hamarkada / Gerra ostekoa

2 ARETOA

- **10ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **11n:** 17:00, 20:00
- **12an:** 19:30

“Bienvenido a la montaña”
KOMEDIA



2024/Italia/112'
Zuzendaria: Riccardo Milani
Aktoreak: Antonio Albanese,
Virginia Raffaele, Sergio Meoerosi
Unibertsitatea / Hezkuntza

ANTZOKIA

- **10ean:** 16:30, 19:30, 22:30
- **11n:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **12an:** 20:30

“El contable 2”
AKZIOA



2025/AEB/124'
Zuzendaria: Asier Urbieta
Aktoreak: Ben Affleck, Jon
Bernthal, Cynthia Addai-Robinson
Thriller/Sekuela / Autismoa

ANTZOKIA

- **10ean:** 17:00
- **11n:** 17:00

“La niña de la cabra”
DRAMA



2025/Espainia/95'
Zuzendaria: Ana Asensio
Aktoreak: Alessandra Gonzalez,
Juncal Fernandez, Lorena Lopez
Haurtzarora / Lagunartekoa



FUNEUSKADI
Funerariak

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO CREMATORIO
EGOIARI

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Eigoibar: Xibilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	---

Eibar · Eigoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

DEPOR TABERNA
T. Etxebarria, 16 943 94 49 12
deportaberna@deporibar.com

EGUNEKO MENUA
astleheneetik ostiralera
13:00etara: 15:00etara

ASTEBURUETAN
razioak, o'artekoak,
plater konbina tuak...

GOSARIAK egunero

TALDEENTZAKO
menuak egiten dira

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **ANDER**, apirilaren 27xan 8 urte bete zenduazten eta. Besarkada eta musu bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MALEN**, polittori, gaur zure eguna da eta. 8 urte mando. Ondo pasa. Maite zaittugu. Aiuri, Aita eta Ama.



Zorionak, **AIMAR**, hillaren 2xan 8 urte bete zenduazten eta. Patxo haundi-haundi bat etxekuen partez!!



Zorionak, **EKAIN**, txapeldun! Apirilaren 25ian 6 urte bete zenduazten eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MAILEN**, Cordoba. Apirilaren 29xan 7 urte bete zenduazten eta. Ikaragarri maitte zaittuen zure tiaren partez.



Zorionak, **JULEN**, etzi 9 urte beteko dozuz eta. Patxo haundi bat, txapeldun, etxekuen partez.



Zorionak, **UNAX**, astelehenian 15 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat osabazteba eta, batez be, Oihanaren partez.



Zorionak, **ANI!** Hillaren 14an 8 urte beteko dozuz eta. Patxo handi bat danon partez.



Zorionak, **NAIKE**, hillaren 2xan 6 urte bete zenduazten eta. Famelixaren eta, batez be, Lur, Oinatz eta Bernaten partez.



Zorionak, **KIRA**, gure etxeko sorgintxuari. 3 urte honezkerok! Asko maitte zaittugu. Ekhi eta famelixa-kuon partetik.



Zorionak, **NIKOLE!** Etxeko txikixak 5 urte bete zittuan eguaztenian! Asko maite zaittugu! Patxua famelixaren partez, muaks!



Zorionak, **JULEN**, bixar 3 urtetxo beteko dozuz eta. Musu eta besarkada erraldoi bat ama, aita eta Maitaneren partez.



Zorionak, **CAROL**, hillaren 6xan gure printzesak 10 urte egin zittuan eta. Besarkada haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AINHOA** Correa Restrepo, apirilaren 11n 6 urtetxo bete zenduazten eta. Patxo haundi bana etxekuen partez.



Zorionak, **JENNY KATHERINE**, apirilaren 23an urtiak bete zenduazten eta. Emazte eta ama eziñ hobia zarelako!



Zorionak, **GABRIEL** Correa, apirilaren 14an 10 urte bete zenduazten eta. Patxo bana etxekuen eta, batez be, Ainhoaren partez.



Zorionak, **JULEN**, hillaren 3an gure etxeko superheroiak 4 urte bete zittuan eta. Asko maite zaittugu, Julentxo.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

- 1.2. Errentan
 - Zumaian 3 logelako alojamentu turistikoa asteka alokagai, uda zein beste edozein urtarotan (garajea ere badu). Etxe 2019an guztiz berritzuta. Zumaia erdian dago (Juan Belmonte kalea), baina taberna giroetatik kanpo. 678222229.

2. MOTORRA

2.1. Salgai

- Autokarabana perfilatua salgai, oso egoera onean. 2015 urtekoa eta 18.500 km besterik ez. Plaka solararak, hotz gailua, ohea irlan etb. 5 laguntzako. 48.000€, negoziagarriak. 667376212.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garaje partzela alokagai Urkizuko dorreetan. 609453946.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. 640050714.
- Emakumea eskaintzen da haurrak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita gaeuz ere. 642761117. Paulina.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko (ziurtagiri soziosanitarioa) eta garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. 631907532.
- Neska eskaintzen da lan egiteko. Externa. 631418130.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 632288100.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 688655477.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 697837557.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri soziosanitarioa). Interna, baita orduka ere. 643766267.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. 624828670.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Goizez edo gaeuz. 602800266.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka eta asteburuetan. 642223295.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka eta asteburuetan. 653573290.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioa) -baita ospitalean ere- eta garbiketarak egiteko. Erreferentziak. Orduka. 667060292.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632426318.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak pasiatzeko. Baita asteburuetan ere. 617571210.
- Gizonezkoa eskaintzen da zapatuetan lan egiteko. Goizez edo egun osoan. 645735442.

4.2. Langile bila

- Odontologo orokorra behar da Mendarok hertz-klinika batean. Jardun partzial jarraia adostekoa: bi, hiru edo lau egun. Baloratuko da: euskara jakitea eta odontopediatria ezagutzak izatea. Bidali curriculum: odonto2025x@gmail.com
- Zerbitzaria behar da Buenos Aires eta Kalaka tabernetarako. Bidali CV: buenoseibar@gmail.com
- Langilea behar da Armagintzaren Museoa ordezkapenak eta bisita gidatuk

egiteko. Bidali CV: ondartzet@gmail.com

- Odontologo orokorra behar da Ermuko hertz klinika batean. Astean bat edo bi egunerako. Bidali CV: niklinika@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- "Obras completas de Jose Miguel de Barandiaran" lana salgai. 15 tomo dira. 688691739.

6.3. Galdu/Aurkitu

- I-watch erlojua (Iphon-ena) aurkitu dugu mendian. Jabeak 649031990 zenbakira deitu dezake.



www.izarraitz.eus

HEZKUNTZA
ESKAITZAREN
IBILBIDEA

25-26

Etorri hai!

HASIERAKO
LANBIDE HEZIKETA

01. GRADUA



Bereko Informetuko
Gidaria Profesionala

ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

02. GRADUA



Arretza eta
Altxarigintza



Administrazio
Kudeaketa



Mikroinformetika
Sistemak eta Sareak



Mendikatzen
Egotean dauden
Pertsonentzako Arreta



Mantentze Lan
Elektromekanika



Mekanizazio



Ezizaintzako
Zaintza Osagarriak



Fabrikazio Mekanikoko
Produktzioaren
Programazioa



Plataforma Androidko
Aplikazioen Garapena



Dienak eta
Altxari-Horritzeak

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

03. GRADUA



Mekatronika
Industrialra



Gizartiaritza



Administrazioa eta
Finantzak

MASTER
PROFESIONAL

E. GRADUA



Informazioaren
Teknologien Inguruneetan
Zibernetikak



Erregulazio Teknologien
Inguruneetan
Zibernetikak

IZARRAITZ
Lanbide Heziketa

Guztionez, guztiontzat!



AURREMATRIKULA
Maiatzak 5-23

CIFP IZARRAITZ
LANBIDE HEZIKETA LHBI
Alameda sarea 2/9
20700 Altsasu (Gipuzkoa)
Tel. 947 83 3174 - bulego@izarraitz.eus
@izarraitz_LHBI





Markel Ferreño

Eibartarra. 20 urte.

Fabrikazio Mekanikoko
Produkzioaren Programazioa
Ikaslea

HEZIKETA ZIKLOAK Ikasleen bizipenak

Nor da Markel?

Ni Markel naiz, eibartarra eta 20 urte ditut, Fabrikazio Mekanikoko Produkzio Programazioko goi mailako heziketa zikloak ikasten ari naiz IMHn. Aurretik Mekanizazio erdi mailako zikloa ikasi nuen IMHn ere bai. Nire zaletasunak gimnasia joatea eta lagunekin egotea dira.

Zergatik aukeratu zenuen Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa ikastea?

Beti entzun dut makina-erremintak Euskadin duen garrantziaz eta mundu hori ezagutu nahi nuen, horrela, zikloetan dauden aukeren artean, Fabrikazio mekanikoko familia aukeratu nuen.

Zergatik IMHn?

IMHn ikastea erabaki nuen, fama ona du eta beti entzun ditut iritzi onak instalazio eta irakaskuntzari buruz.

Zein da zure iritzia orain arte IMHn eta dualean ikasi eta bizi izan duzun esperientzari buruz?

Nire ustez, esperientzia ona da bai IMHn eta baita dualean. IMHn jasotako prestakuntza oso baliagarria izan dan Dualeko enpresan lan egiteko.

Esan ahal diguzu zein den IMHn ikasten pasatako garaitik gehien gustatu zaizuna?

Egia esan, giroa oso ona izan da beti, lagun berri asko egin ditut. Zentroak dituen baliabideak oso onak dira, eta konfiantza handia ematen dizu lanera joateko orduan. Irakasleekiko tratua oso ona iruditzen zait, alderdi guztietan laguntzen baitizute.

Zer asmo duzu datorren urterako?

Orain Duala egiten ari naizen enpresan oso gustura nago, eta nire asmoa da lan egiten jarraitzea.

Zer esango zenioke zure moduko zikloa ikasteko pentsatzen dagoen pertsona bati?

Ez izateko zalantzarik gauza berriak ikasteko. Danerako denbora dagoela eta etorkizunari begira, lan irteera asko daudela.

**ATE
IREKIAK
Maiatzak 14**

Izen ematea



IMH LHII Elgoibar
www.imh.eus
943 74 82 65
zikloak@imh.eus